

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **JEZ ordaindu behar dutenen 2019ko errolda jendaurrean jartzea eta diru-bilketaren epea**

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie zerga-dunen errolda ikusgai egongo dela ondoko lekuetan, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera:

Udal kuotak: Zigoitiko Udalean, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Probintziako eta Estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Zergadunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote zerga kudeatzen duen erakundeari edo Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari. Horretarako 15 egun baliodun izango dituzte, aipatutako zerrenda jendaurrean jartzen denetik aurrera.

Era berean, jendeari jakinarazten zaio 2019ko azaroaren 1etik aurrera ordaindu ahal izango direla araututako epean lehen azaldutako zergari dagozkion ordainagiriak.

#### I. ORDAINTZEKO EPEA

A) Araututako epea: 2019ko azaroaren 1etik abenduaren 31ra.

B) Premiamendu epea: 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko betearazte prozedurari emango zaio hasiera eta dagokion erreargua izango du (Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 28. artikulua).

#### II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Aurreko urteetan ere ordainketa banku bidez egin dutenek ez dute inolako izapiderik egin behar, baldin eta zerga helbideratuta zeukaten kontua oraindik ere indarrean badute. Horrelakoetan, udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek araututako epean ordaindu behar dute udal bulegoan, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara, kreditu txartelarekin. Era berean ordainketa udalak Kutxabankean eta Euskadiko Kutxan dituen edozein kontutan dirua sartuta egin daiteke.

#### III. AHOLKUAK

Banku helbideratzeetan aldaketarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarari jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Ondategin, 2019ko irailaren 13an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA*